

Aurreko ikasturtean Umandiko klaustroak gatazkeen inguruan lan egiteko beharra sentitu zuen. Hau dela eta proiektu bat sortzea erabaki genuen eta hor aurtengo eta hurrengo urterako lana planifikatzea erabaki zen.

Lan honetan oso interesgarria iruditu zitzaigun ikastola osatzen duten estamentu guztiek parte hartzea, irakasleak, ikasleak, gurasoak eta beste hainbat agente kanpoko eta jantokiko monitoreak... .

Proiektu honen helburuak betetzeko hainbat ekintza planifikatu ditugu estamentu bakoitzerako:

- Irakasleentzat:

1. Gatazkak bideratzeko protokolo bat adostu.
2. Arazoen aurrean irizpideak adostu
3. Arauak berrikusi, aztertu eta berregin beharrezkoa bada.

- Ikasleentzat:

1. Gatazkak konpontzeko estrategiak eman.

- Familientzat:

1. Ikastolako arautegia aztertu eta familia guztietara bidali.
2. Gatazkak konpontzeko irizpideak komunitate osoari bidali.

- Jantokiko eta kanpoko monitoreentzat:

1. Azaroen aurrean adostutako irizpideak ezagutu eta praktikara eraman

Ekintza hauek betetzeko baliabide desberdinak erabiliko ditugu:

Berritzeguneko bilerak behar-beharrezkoak ikusten ditugu, Ramón Alzateren materiala. Ikastolako arautegia...

1.- Justifikazioa.

Azken urte hauetan ikastolako irakasleriak beharra sentitu du gatazkeen inguruan plan bat burutzeko non ikasleek duten beharrei erantzun bat eman beharko genien.

Prozesu hau burutzeko fase desberdinetan zatitu dugu:

1. Beharrak ikusita, ziklo bakoitzean gatazkak konpontzeko inguruan plan bat burutu eta martxan jarri .
2. Ikastolako dokumentuak berrikusi eta beharrezkoa bada aldatu
3. Ikasleei estrategiak eman.

Proiektu honetan irakasleak eta ikasleak ezezik ikastolan parte hartzen duten beste estamentuek ere parte hartuko dute (gurasoak, ikastolako monitoreak, kanpoko ekintzetako monitoreak, udaletzeko pertsonala....)